

Aitaren etxea

Aitaren ondoan nago. Hemen ari zait, etxera joan eta etxera joan nahi duela. Besterik ez dio. Esan diot egoteko lasai, etxean dagoela eta. Erantzunik ez, haserre begiratu dit, segituan esateko: etxea ez baino, txabola zatar bat besterik ez dela, eta nori bururatzen zaion halako izenik ematea ere. Arrazoi du. Berehala, ordea, samur begiratu dit, nire ezjakintasuna bideratzeko ahalegina egiteko prest balego bezala. Irribarre egin diot. Eguzki izpi lotsati batzuk sartu dira egoitzako gelan, aita leiho ondora eramanez orduko piztu zaio irribarrea aurpegian, eta niri, berriz, arratsalde hartako bizipena datorkit burura. Aitak bezala baneki nola ezabatu zenbait oroi-tzapen, arratsalde hartakoa ezabatuko nukeen lehenik; horrela, hobeto jakingo nukeen egoitza hau ez dela inoren etxea.

Arratsalde hartan amak berehala joateko etxera agindu zidan. Sukaldeko giro iluna ikustea nahikoa izan nuen zoritxarrik okerranean zeudela konturatzeko, eta gainerako egunetan ez bezalako giro gaiztoa sumatu nuen bien artean.

—Ez haiz berehalakoan azaldu!— esan zidan aitak, ohi baino umore txarragoz. —Etorriko haizela esaten dun eta ez haiz azaldu ere egiten, eta honako hau ere berdina dun —amarengatik—; hik ba al dakin zergatik dagoen haserre? Nik ez zakinat. Oso gauza arraroak esaten hasi dun, eta kezkatuta nagon. Kallean bizi garela zion, hiri normala iruditzen al zain?

—Eta zer diozu, aita, ez zarela kalean bizi?— galdetu nion, esan orduko jabetu banintzen ere ez niola horrelakorik esan behar.

—Hi ere horrela al hago? Erotu egin al zarete denok?

Haren aldarte txarragatik eta ondorengo isiltasunagatik konturatu nintzen zerbait arraroa ari zela gertatzen, iruditu zitzaidan izu-ikarak hartuta zegoela aita, irri-iseka burlatia ere nabaritu nion, pentsamenduak irakurri balizkit bezala. Une hartantxe, aitak ukabilkada bat eman zuen mahai gainean esanez:

—Ez diozue jaten ematen mandoari! Eta ez dakit zuekin bion zer egin beharko dudan!— amak eta biok ikaratuta begiratu genion elkarri.

—Doktoreari deituko diot, Antonio— aita saldarik gabeko katilutik edaten ari zen momentu hartan—; sukarra duzu, eta zuri gertatzen zaizuna da burua seko joan zaizula, eta katilu hutsetik ez edan, ezin da eta.

Ez nuen esango hain denbora gutxian burua hainbeste joan zitzaionik. Baina, zer egin? Hura zen galdera. Tristuraz pentsatu nuen aita bere gainbeheraren hasieran zegoela, eta gu amaiera harekin konformatzera behartuta geundela.

—Aizan, ikusten al den ukiulu hau? Bi gurdi pare eta bi mando pare sartzen ditun. Bueno, orain esaidan niri zergatik



Elena Aierbe Segurola

Elena Aierbe Segurola

Tolosa (1969). Zuzenbidean lizentziaduna. Idazteaz gozaten, errealitatea desenfokatu eta bizitza paraleloak sortu nahian iragana antolatzeko.

dauzkagun gurdi eta mando pare bakarra, bi sartzen bazaizkigu. Uler-tzen al didan?

Egundoko ahaleginak egin behar izan nituen bere aurrean negarrrik ez egiteko, beharbada ez zukeen ulertuko aspaldian ezin zuela mando-gurdiekin borrokatu, baina akaso nire negarrak zer pentsatua emango zion.

Pixkanaka konturatu nintzen zentzua ez dela betetzen poltsa hutsa bezala. Pentsatzen hasita nengoen aitaren beherakadak ez zuela erre-mediatorik. Sukalde hartatik ateratzeko irrikitan nengoen arnasa hartzeko, baina ez nekien nola egin ama mindu gabe.

—Aizan, hiru asteotan horrela zagon. Ez dinat ezer esan baina...

—Ama... medikuari deitu beharko diogu.

Ama ez da inozoa, bazekien dei hark gauza asko aldatuko zituela. Deitzen utzi zidan.

—Medikua gizajo bat dun. Zorigaitzozko botika emango zidan, eta gero esango din gure baratzeko tomateak asko gustatzen zaizkiola, tomateak ematera behartuta egongo bageunde bezala. Mandoari jaten eman al diozue?

—Antonio, —amak— aspaldi ez duzu baserririk, ez mandorik, ez tomaterik; berrogeita hamar urte baino gehiago daramatzazu kalean.

Begiratuarekin egin nion errieta amari.

—Eta non aditu duzu zuk hori? Telebistan? Zenbat aldiz esan behar dizut telebistak gezurrak besterik ez duela esaten. Besterik ez genuen behar, zer egin dugu, bada, bizi guztian horiek denak derrepente galtzeko?

—Ez, aita, ez dituzu galdu, baina mandoa lehengo astean saldu genuen, ez dago mandorik.

Lasaitasun zantzu bat ikusi nion aurpegian, haren kezkek jada ez zuen zentzurik. Bat-batean, ordea, bota zigun:

—Eta non zagon, ba, dirua? Nik ez dinat ikusi...

—Hor dago, aita, zaude lasai.

Medikuari deitu eta pixka baterako atera nintzen, beharko atera, sukalde hartatik arnasa hartu eta negar egingo banuen. Bai gogotik egin ere, malkoak ahitzera. Eguzkia nola ezkutatzen zen ikusteko ere nahiko denbora izan nuen. Konturatu ere, konturatu nintzen batzuentzat ez zela gehiago eguzkirik berriz aterako. Oroimen-lapurak aitaren azken berrogeita hamar urteak eraman zituen egun hartako azken eguzki-izpiekin batera.

Ate klaskariaren zaratak atera nau gogoetatik.

—Zer moduz, Antonio? —Galdetu du erizainak, gelan sartu orduko—. Giro ederra dago, ala?

Erabakitasunez sartu da gelan, etxean balego bezala. Aitak ez dio begiratu ere egin, niri begira-begira dago, nire pentsamendua asmatu nahian.

—Zer dabilkin buruan? Ez ezan hainbeste pentsatu, eta goazeman etxera.

Ilustrazioa:
Kristina Fernandez